# PR-Gi 122

## SAN PEDRO-KALAMUA-HIRUITURRI-SAN PEDRO (ELGOIBAR)




**1** Este itinerario comienza en el aparcamiento que se encuentra unos metros antes de la ermita de San Pedro. Salimos a la carretera, para enseguida tomar una pista de cemento a la izquierda. Continuamos hasta el cruce del albergue Aubixa, frente al que hay un pequeño aparcamiento en batería a la derecha (1.520 m.).



### SAN PEDRO DE IDOTORBE

Las primeras referencias que se tienen sobre San Pedro de Idotorbe, están relacionadas con la aparición de una imagen de la Virgen en Arrate (1.442). La ermita de San Pedro es citada como eremitorio y fue aquí donde, tras su hallazgo, fue llevada dicha imagen. San Pedro de Idotorbe es el edificio más emblemático del barrio rural de San Pedro. Su festividad se celebra el 29 de Junio, con fiestas populares en honor a su patrón. Adosado a la ermita se encuentra el frontón y junto a éste, una bolera. También existe una zona arbolada con mesas, bancos y parrillas. Frente a la ermita se ubica el conocido asador "San Pedro", punto ideal para finalizar la ruta y reponer fuerzas.



Área recreativa de San Pedro

Seguimos por la pista hasta el caserío Urkiola Handi (2.150 m.) y desde éste, por un paisaje de pinar y pastos, y tomando la opción de la derecha, continuamos hasta el caserío Armazio (2.370 m.). Aquí termina la pista de cemento y comienza una pista de tierra.




### KALAMUA

Kalamua es uno de los montes más emblemáticos y visitados por excursionistas y amantes de la montaña. Su cumbre nos ofrece maravillosas vistas de las comarcas del Bajo Deba y Lea-Artibai así como de gran parte de los macizos montañosos y cumbres de Euskal Herria. La estratégica ubicación del cordal entre Kalamua y Urko ha guardado durante generaciones algunos de los pasos mas importantes entre la cuenca del Deba y los pueblos de Lea-Artibai. Segun palabras de L. P. Peña Santiago: "bastaria citar los collados próximos a la ermita de San Pedro de Akondia, donde en las luchas banderizas se libraron repetidas batallas, y uno de cuyos textos ha llegado hasta nuestros días a través de las "Bienandanzas e Fortunas" de Lope Garcia de Salazar (S. XIV).

**2** A la izquierda vemos varios ejemplares de hayas "motza" y a la derecha pinos de Monterrey.



### HAYAS "MOTZA"

Las hayas en su forma natural poseen un tronco alto y alargado. Las llamadas hayas "motza" son producto de las talas motivadas por la necesidad de un aumento del volumen de madera con destino tanto a la construcción y carpintería como a la fabricación de carbón con destino a las ferrerías de la zona. Este tipo de hayas, todas ellas con más de 300 años, pueden ser contempladas en el recorrido entre el caserío Armazio y la regata Saturixo.

En el cruce tomamos a la izquierda. Atravesamos en dos ocasiones la regata de Saturixo (3.020 m.) y en el siguiente cruce tomamos a la derecha, siguiendo por una senda que comienza en el santuario de Arrate (4.130 m.). Seguimos por la misma senda que este PR hasta un cruce, en el que tomamos a la derecha (el camino de la izquierda lleva al caserío y ermita de Akondia).

**3** Comenzamos a subir en dirección al monte Kalamua, de 777 m. de altura. Continuamos de frente por una pista, la cual nos lleva hasta una campa en el collado del Kalamua (6.130 m.). En esta campa, divisoria de las provincias de Gipuzkoa y Bizkaia, se separa nuestro itinerario del PR de Eibar, el cual continúa a la izquierda hacia Usartza. Nosotros giramos a la derecha, por el borde superior de un pinar (6.295 m.).

### ROCAS VOLCÁNICAS

En el área comprendida entre Soraluze, el cruce de Maltzaga y Elgoibar, toda la estructura geológica es de origen volcánico, procedente de volcanes submarinos situados en la zona de Arrate y con una antigüedad de unos 70 millones de años (Cretácico Superior).

La erosión ha dejado al descubierto lavas almohadilladas, "pillow-lavas", y rocas piroplásticas. En el pinar próximo a la cima de Kalamua, podemos contemplar parcialmente cubiertas de vegetación, ejemplos de estas últimas rocas volcánicas.



Rocas piroplásticas

En el siguiente cruce tomamos a la izquierda. Cuando termina el pinar, la pista atraviesa un helechal que nos permite disfrutar de una maravillosa panorámica: Arrate, Karakate-Hirugurutzeta, Arno, Markina, etc. En un posterior cruce, en una pequeña vaguada, tomamos a la izquierda para descender una fuerte pendiente por una senda estrecha, hasta llegar a una pista (7.520 m.).

**4** A unos 50 metros a la izquierda encontramos la fuente de Hiruiturri, con cuatro mesas y bancos habilitados por la Sociedad de Montaña de Elgoibar.



### HIRUITURRI

Junto a nuestro recorrido, en terrenos del municipio vizcaino de Markina-Xemein, se encuentra la fuente de Hiruiturri.

Esta fuente de tres caños, de ahí su nombre "Hiruiturri", fue acondicionada a mediados del siglo XX por el grupo de montaña Morkaiko de Elgoibar.

El lugar, poblado de fresnos, cuenta con mesas y asientos. Toda una invitación para hacer un alto en el camino.

Antes de ese cruce triple, nuestro itinerario continúa por la primera pista que se abre a la derecha (7.690 m.).

Seguimos por ésta hasta dar con una pista de cemento, por la que hemos comenzado a subir, justo antes del cruce de Aubixo (8.780 m.) y giramos a la izquierda. Nos queda desandar el camino para volver al aparcamiento de San Pedro (10.280 m.).

PR-Gi 122

SAN PEDRO-KALAMUA-HIRUITURRI-SAN PEDRO (ELGOIBAR)



**1** Ibilaldi hau San Pedro elizaren aurrean dagoen aparkalekuan hasten da. Errepidera atera eta segituan ezkerretik ateratzen den pista bat hartuko dugu. Aubixa aterpera ematen duen bidegurutzeraino jarraituko dugu, hemen aparkaleku txiki bat aurkituko dugu (1.520 m.).



### IDOTORBEKO SAN PEDRO

Idotorbeko San Pedrori buruz ditugun lehen aipamenak, Arraten Ama Birjinaren irudi bat (1442an) agertzearekin loturik daude. San Pedro baseliza eremitategitzat dago aipatua eta haraxe eraman zuten irudia aurkitu ostean. San Pedro nekazal auzoko eraikuntzarik ikusgarriena dugu Idotorbeko San Pedro. Haren jai eguna ekainaren 29an ospatzen dute euren zaindariaren omenetan herri festak eginez. Baselizari atxikia pilotalekua dago eta, alboan, bolatokia. Bada han zuhaizti bat ere mahaiez, aulkiz eta su-tokiz hornitua. Baselizari aurrez-aurre kokatua "San Pedro" erretegi ezaguna daukagu, ibilaldia bukatu eta indarberritzeko gune ezin hobea.


San Pedroko jolasgunea

Pistatik jarraituko dugu Urkiola Handi baserriraino (2.150 m.) eta hemendik, pinu eta lare artean, eta eskubiko aukera hartuz, Armazio baserrira joaten gara (2.370 m.). Hemen porlanezko pista bukatu eta lurrezko bat hasten da.




### KALAMUA

Mendietan bitxienetakoa eta txangolari eta mendizale gehien biltzen dutenetakoa da. Haren gailurrak Deba-Behea eta Lea-Artibai bailaretako ikusgune zoragarriak eskaintzen dizkigu, eta, bai Euskal Herriko mendialde eta gailurrak ugari ere. Kalamua eta Urkoren artean kokatua dagoen ordeka gune estrategikoak zaindu ditu gizaldiak zehar Deba eta Lea-Artibai erreketako herrien arteko igarobiderik garrantzitsuenetako batzuk. L. P. Peña Santiagoren hitzetan: "aski litzaiguke Akondiako San Pedro baselizaren inguruko muinoak aipatzea, zeintzuetan bando-gudateetako borrokaldi bat baino gehiago gertatu zen, eta, haietako baten kontakizuna guganaino ere heldu gainera Salazarreneko Lope Gartziak (XIV. M.an) idatziriko "*Bienandanzas e Fortunas*"en bidez.

**2** Ezkerrean pago-motza ale batzuk ikusiko ditugu eta eskubian Monterreyko pinuak.



### PAGO "MOTZ"AK

Pagoek berenez enbor garai eta luzanga izaten dute. Pago "motz" deritzenak, eraikuntzarako eta zurgintzarako nahiz bailarako sutegietarako behar zen egun kopuru geroz eta handiagoa lortzeko egin zitzaizkien mozketen ondorio dira.

Honelako pagoak, denak 300 urte eta gehiagokoak, Armazio baserritik Saturixo errekastora bitartean ikus ditzakegu.

Bidegurutzean ezkerretara hartuko dugu. Erreka bat gurutzatu (3.020 m.) eta hurrengo bidegurutzean eskubira hartuko dugu; alertzeen artean jarraituko dugu hurrengoraino, hemen Eibarko PR-arekin topatuko gara (4.130 m.). PR hau Arraten hasten da. PR honekin batera jarraitzen dugu bidegurutze bateraino eta hemen eskubira hartzen dugu (ezkerrekoa Akondiako baserri eta ermitara doa).

**3** Kalamua mendirantz igotzen hasten gara eta tontor batera iristen gara. Guk zuzen jarraituko dugu pista batetik Kalamuako leporaino iritsi arte (6.130 m.).

Belardi honetan gure ibilbidea eta Eibarkoa banatu egiten dira. Azken honek, ezkerretatik Usartzara doa. Guk eskubira hartuko dugu, pinudi baten gainetik (6.295 m.).

### SUMENDI HAITZAK

Soraluze, Maltzagako bidegurutzea eta Elgoibar arteko eremua egitura geologiko guztia sumendi jatorrikoa da. Arrate aldean leherturiko sumendietatik etorriak eta 70 milioi urteko antzinatea dutenak (Kretazeo Garaia).

Agerian utzi ditu higadurak kuxinerako labak "pillow-lavas" eta haitz piroplastikoak. Kalamua gain aldeko pinudian aurki ditzakegu, landare artean estali samar bederen, sumendi haitz hauen adibideak.


Haitz piroplastikoak

Hurrengo gurutzean ezkerretara hartuko dugu. Pinudia bukatzen denean garoak hasten dira, hemendik oso bista ederra daukagu: Arrate, Karakate-Hirugurutzeta, Arno, Markina, eta abar. Hurrengo gurutzean ezkerretara hartzen dugu aldapa gogorra duen bidexka batetik jarraituz pista batera iristeko (7.520 m.).

**4** Ezkerretara joanez 50 metrotara Hiruiturrira joaten da. Hiruiturrin Elgoibarko Mendi Elkarteak jarritako lau mahai eta banku daude.



### HIRUITURRI

Gure ibilbidearen alboan, Bizkaiko Markina-Xemein udal-herriko lurretan, aurkituko dugu Hiruiturri deritzan urbegia.

Hiru hodi-mutur dituen iturri hau, hortik datorkio "Hiruiturri" izena, XX. mende erdialdean taxutu zuen Elgoibarko Morkaiko mendi taldeak. Lizarraz jantzitako toki hau mahaiez eta aulkiz hornitua dago.

Bidean atseden alditxo bat hartzeko abagune bikaina.

Baina bidegurutzeraino iritsi aurretik, metro batzuk lehenago, eskubira ateratzen den pistatik jarraitzen du gure ibilbideak (7.690 m.).

Hemendik jarraitu porlanezko pista batera iritsiko gara, Aubixoko bidegurutzetik gertu (8.780 m.), eta hemendik, ezkerretatik jarraituz, etorri garen bide bera hartuta, bueltatuko gara San Pedroko aparkalekura (10.280 m.).

